



# maxixatzen

aleberezia

2010eko abendua

## *Aro berriaren aurpegi berriak*



**Maxixatzenen** ale berezia

**“Maxixatzen aldizkari bat baino gehiago da.**

**Euskararen egoera kezkatzen gaituenon bilgunea da”**



Naroa Olalde Maxixatzen euskaldunon elkarteko lehendakari berria da. Azkoitian jaio zen 1979an eta euskararen inguruan lan egin izan du azken urteetan. Egun, EMUN kooperatiban dihardu, lan munduan euskara normalizatze kolan egiten duen kooperatiban.

Orain urte eta erdi Maxixatzenek egindako etenaldiak eta hasitako prozesuak erakarrita hurbildu zen taldera. Eta azkenean elkarteko lehendakari izatea suertatu zaio. “Maxixatzenek funtzio bat betetzen zuen Azkoitian eta hori bertan behera gelditzea ezinezkoa zen. Zerbait egin behar genuen” dio taldera zer erakarrita etorri zen galdetuta.

### **Zergatik izan behar da Maxixatzeneko parte?**

Nahiz eta beste herri batzuekin alderatuz herri euskaldun batean bizi, Azkoitian ere baditugu hutsuneak eta badago zer landua. Ildo honetatik, Maxixatzenek funtzio bat betetzen du, eta Azkoitia euskaldun bat eraikitzeke erreminta bat izatea nahi dugu.

### **Noiztik zara elkarteko lehendakaria?**

Azaroan egin zen ofizial erabakia. Egindako batzar orokorrean onartu zen proposamena eta ordunik naiz bertako presidentea. Hala ere, azpimarratzekoa da lehendakari kargua izatea ez dela garrantzitsuena. Izan ere, lantaldean egiten dugu lan, denon artean hartzen ditugu erabakia, inor ez dago inoren gainetik... presidentea izen-

datzea zerbait formala da, erregistroaren exigentzia. Gure gizartea horrela dago eraikita, eta elkarte batentzako beharrezkoa da lehendakaria izatea. Baina praktikan, horrek ez du garrantzirik. Taldeko beste edozeini ere egokitu ahal zitzaion.

har gara. Elkarte baten altxorrik garrantzitsuena bazkideak dira, eta denok gara bazkide. hori ez dugu ahaztu behar. Guztientzat ere irekita dago taldea. Norbait animatuz gero gerturatzea besterik ez du.

### **Nola kudeatzen da lantalde sistema hori?**

Lan ildoen arabera. Talde handi bat bagara ere, azpitalde txikiagoak osatzen dira lan-ildo bakoitzarentzako. Erabaki orokorrak bilera nagusitan erabakitzen dira, bai-

na gero, denbora eta praktikotasuna irabazteko lantalde txikiak dinamizatzen dute arlo bakoitza.

### **Zein dira lan-ildook?**

Kultura, ikerketa eta komunikazioa.

Euskara ez da bakarrik hizkuntza bat. Herri baten izaera ere bada, bizitza eta gizartea ulertzeko eta interpretatzeko era bat. Hori guztia azaltzea,

**“Aldizkaria aurrerago etorriko da, baina komunikazio arloa lantzea beharrezkoa da”**

### **Filosofia hori taldeko kide berriek ekarri duzuen da?**

Bai eta ez. Lehen ere lantaldean funtzionatzen zuten. Inoiz ez da egon aginte harreman bertikal bat, lehen ere denon artean erabakitzen zituzten gauzak. Baina taldea handitzearekin eta jende berria biltzerakoan egin genuen eskaera bat da: talde kooperatibo bat izatea. Denok gara parte eta denok parte sentitu be-

sustatzea eta zabaltzea da helburuetakobat.

Euskararen egoera, erabilera, egoeren zergatia... ikertzea ere garrantzitsua da. Izan ere, arazoak ikertu eta identifikatu gabe, zaila da irtenbideak topatzea.

Azkenik, komunikazio arloa. Orain arte, Maxixatzen astekariarekin lotu izan da. Baina elkarte hori baino gehiago da. Azkenean, astekaria elkartearen helburuak lortzeko tresna bat zen. Momentuz ez da astekaririk argitaratuko, baina komunikazio arloa landu behar dela ukazina da. Euskara komunikatzeko erreminta bat ere bada. Aprobetxatu behar dugu. Nola? Oraindik ez dago erabaki-

ta. Webgunea, astekaria, hilabete-karia, sare-sozialak...

te, alderdiez aparte, ideologiaz aparte.

**“Lehendakari kargua izateak ez da garrantzitsuena, lan guztia lantaldetan egiten baitugu”**

**Beraz, Maxixatzen astekaria baino gehiago da?**

Bai. Hau elkarte, biltoki, topagune bat da. Euskaldunon elkarte bat, euskaraz eta euskararekin lan egin nahi duen jendearen biltoki bat. Euskararen egoeraz kezkatzen direnen biltokia. Azkoitia euskaldun bat nahi dutenen gunea. Politikaz apar-

14 urtetan Azkoitian euskararen alde lan egin duen talde bat da eta aurrera begira ere, hori izaten jarraitu behar du.

Momentuan gure helburu nagusia ez da aldizkaria argitaratzea. Horregatik, bazkidetza ere, ez da aldizkaria ateratzeko diru bilketan oinarrituko. Orain, hilabetean euro bateko kuota jarri dugu. Argi dago horrekin ez dagoela aldizkaririk ekoizterik. Agian, aurrerago etorriko da. Baina horretarako diru-iturriak ere landu behar dira. Kuota honek eskuartean ditugun proiektuak ekoizteko balioko digu.





### *Amaiera batekin dator hasiera berria*

Urte eta erdi pasa egon da Maxixatzen euskaldunon elkarte isilpean. Horrek ez du esan nahi denbora hori etenaldi bat izan denik, edo jai hartu zuenik. Urte eta erdi hori Maxixatzen euskaldunon elkartearen aro emankorra izan da.

Hausnarketa garaia, jendearen atxikimendua ikusteko epea, proiektu berri baten hasiera erabakitzeke unea. Taldea indarberrituta dator eta asmo berriekin.

Lan-ildo berriak ditu eta euskararen alde lan asko egiteko gogoz dator. Taldea lau kidez osatuta egotetik hamabi izatera pasa da.

## Atzera begira

Ibilaldi luzea zen gurea. 1996 abiatu genuen gure martxa, eta ostiralero ate joka ginen Azkoitiko etxe guztietan. Baina, egoerak behartuta, 2009ko maiatzean Maxixatzenen bidea eten zen. Ordurako, elkarte oso ahul zegoen, hasierako 20 laguneko lan taldea oso nekatuta zegoen eta lau lagunera murriztuta. Momentu horretan eztabaidatu genuen ea merezi zuen



*“Maxixatzen bertan behera uztea nahi genuen. Bazkideek ez ziguten baimenik eman”*

aurrera jarraitzea edo ez. Ez genuen animo gehiegirik. Ez genion irtenbiderik ikusten.

Egoera horrela, ez-ohiko batzarra deitu genuen. Gure bazkideei elkarte bukatutzat ematen genuela esateko. Baina hauek ezezkoa eman ziguten. Aldizkariaren etenaldia ulertzen zuten, baina ez elkartearena.

Gure etenaldiaren arazo nagusia, ekonomikoaz gain, udalarekin genuen harremana zen. Urteetan hartu-emana egokia izan bazen ere, azkenaldian gauzak okertuz joan ziren. Udal aldizkariaren sorrerarekin batera.

2008az geroztik 20 orrialdeko aldizkaria ateratzea erabaki zuen udalak. Hilabetekaria izanik ere, Maxixatzen aldizkariak jasotzen zuena baino diru-laguntza handiagoa zuen. Hori salatzeko kalera irtetea erabaki zen. Eta era horretan gure egoeraren berri eman genuen. Zein egun egokia goa azoka eguna baino?

Baina Maxixatzenen amaiera festa giroan behar zuela ere pentsatzen genuen, horrega-



tik, egindako agerraldiaz gain, 2009ko ekainaren 20an kantu afaria antolatu genuen udaletxe azpiko kontzejupean. Gau horretan 70 lagun bildu ginen gaugiro apartarekin. Momentu hori aprobetxatu genuen Maxixatzenen arazoaz hitz egiteko eta elkar-tearen egoeraz eztabaidatzeko. Bertan adierazi genuen jendearen beharra genuela, lantaldean kide berriak behar genituela. Ez genuen erantzun garbirik jaso. Baina badirudi ereindakoak fruitua eman zuela. Taldea pixkanaka puzten joan zen.

## Formazio prozesuaren hasiera

Egiten genuena gogoz egiten bagenuen ere, oraindik ez genituen beharrezko tresnak gure ingurua azertu eta ulertzeko. Herrian hizkuntza kontuetan atzera egiten ari ginela erakusten zuten zantzuak bazeuden eta hori zergatik gertatzen ari zen ulertzeko formazioa behar genuen. 2008an hasi ginen formazioa jasotzen. 2009an aldizkariaren etenaldiarekin batera formaziora joaten ginen lagun taldea handitu nahi genuen. Horregatik, kantuafaria antolatzen lagundu zigutenei eskaini genien aukera hori. Bi gauza garbi laga genien.

*“Formazioa beharrezkoa genuen, baina, ez zen doakoa”*

Pausu hori ematea ezinbestekoa zela elkartearentzako eta ez zela doaneko formazioa izango. Prozesuan sartzen zena, lan-taldean sartzen zen. Urrian zortzi lagunek hasi genuen formazio saioa. Beraz, dagoeneko zortzi lagun ginen taldean. Hasierako laurak eta lau berri.

Hiru planotan oinarritzen zen jaso genuen formazio plangintza. Lehenik, euskara elkar-teak eta hizkuntza komunitateak. Bestetik

# Maxixatzenen ale berezia

hiztuna eta bere funtzioak. Eta azkenik kulturagintza zer, nola, noiz eta zertarako.

Horietatik bi lehenak egin ditugu, baina, kulturala egiteko dugu oraindik. Eta hau zortzi lagunek egin genuen. Denek berdin ikasi eta entzunda, berdinean jardunda.

Bazkideei ere formazioa etortzeko gonbitea zabaldu genien. Hortik gure azken uzta. Beste hiru lagun etorri ziren gure formazioa jasotzeko asmotan. Maxixatzenen laguntzeko asmotan.

## Ondoren ere ekiten

Formazioa jaso ondoren, ikasitakoa praktikan jartzea tokatzen zen. Baina ezertan hasi baino lehen, herriko irakurketa soziolinguistiko koskorra egitea erabaki genuen. Taldekideak elkartu eta euskarari erreparatuta luze eta zabal hitz egin genuen gure zalantza, kezka eta beldurrez. Saio emankorrek izan genituen

## “Xiximaxan ekintza arrakastatsua antolatu genuen”

taldean irakurketa hori egiten genuen bitartean. Baina gure iritzi eta zalantzekin gelditzea ez zen irtenbidea. Horregatik lehen



ekintza, eta arrakastatsua, burutu genuen: Xiximaxan. Herritarren iritzia biltzeko 60 he-



rritar bildu genituen Xiximaxan izena jarri genion world kafe antzeko saio batean.

## “Sare-sozialen bidez emango zaio jarraipena saioari”

Bi ordu eta erdiko saioa, sei eta zortzi bitarteko taldeetan banatuta eta elkarteko lagun bat talde bakoitza dinamizatzen. Hiru galderen bueltan eskatu genien iritzia. Lehen galderan motibazioa zen ardatza, ezagutza bigarrengoan eta azkenekoan erabileran. 25 minutu zituzten galdera bakoitzaren inguruan eztabaidatzeko. Ondoren, beste talde batera pasa behar zuten, jende desberdinarekin hitz egiteko, jende desberdinetan iritzia entzuteko eta elkar ulertzeko.

Saioaren ondoren, mokaduxoa hartu genuen parte hartu zutenekin. Jendeak oso saio motza zela iritzi zion. Aurrera begira nolabait kontaktua mantendu beharko litzatekeela zioten askok beraien balorazioan. Beste batzuek ordea, dinamika hori gazteekin eta erdaldunekin probatu behar genuela zioten.

## Sare-sozialak

Saioaren arrakasta ikusita, dinamika bertan behera uztea pena

## “Euskararen inguruan ez da egin ikerketa kualitatiborik”

zela uste genuen. Horregatik, saio horretan agertu ziren kezken inguruan eztabaidatzeko ZUTAGUn foro pribatu bat zabaldu genuen, nolabait, xiximaxan jardunaldiari jarraipena emateko.

## HUHEZlrekin ikerketa

Hala ere, bildutako zalantzen eta kezken erantzuna emateko, ez da nahikoa euskara elkarteko kideek jaso genuen formazioa.

## Irudi berria



Maxixatzenek irudi berria du. Urte eta erdiko gogoetaren ondoren, izena eta izana eraberriturik ekingo diogu berriro gure bideari. Euskara elkarteak izateari utzi eta euskaldunon edo euskaraz bizitzeko hau-tu kontzientea egin dugunon elkarte, topagune eta bilgune izatea erabaki dugu.

Taldean kide berriak ditugu, ideia berriak, asmo berriak. Lanean ekiteko gogoarekin gatoz, eta hori gure iruditik antzematea beharrezko ikusten genuen. Horretan oinarrituta erabaki genuen gure irudia berritzea eta aldatzea. Kolore biziak erabiliz, gure gogoak irudikatzen. Lehengo iruditik ondo desberdinduko den irudia sortuz, egin den aldaketa erakusteko.

Irudiari erreparatuz gero, bi “e” fusionatu ditugu gure helburua lortzeko. Hau da, gure ideia azpimarratu eta irudikatzen: euskaldunak eta elkarte bat eginik. Euskararen alde eta euskaldunekin lan egiten duen elkarte, euskara maitatu eta bere egoerak kezkatzen duen elkarte. Baina ez bakarrik hori, beste esanahi bat ere gehitu nahi izan diogu. Begirada pixka bat atzeratuz gero bi hego ikusten dira, hegan egiteko prest dagoen elkarte delako adieraziz. Bizirik dagoena, ekiteko prest eta gogoz dagoena. Aurrrera egin nahi duena.



Edozeini galdetuta ere, Azkoitia oso herri euskalduntzat du jendeak. Baina praktikan, azken urteetan, erabilera bi puntu jaitsi da. Gure herrian ume eta gazte guztiak eskolatzen dira D eremuan, zerbitzu publiko guztiak jaso daitezke euskaraz, euskara teknikaria daukagu, AEK, Maxixatzen euskaldunon elkarte... Hala ere, ez da euskarazko produkturik kontsumitzen apenas, herrian sortu diren azken musika taldeak ingelesez kantatzen hasi dira...

Zein da arazoa? Momentuan ez

dago galdera hori erantzuteko daturik. Izan ere, orain arte egin diren ikerketa guztiak kuantitatiboak izan dira. Oso ondo dakigu zenbat haur dauden D eremuan, erraza da kalkulatzeko euskara dakiten herritarren ehunekoa, zenbat langabetuk dakiten euskaraz... Baina ez dakigu nolako erabilera ematen zaion euskarari, zein funtzio betetzen dituen guretzako edo erabilerari ematen diogun garrantzia. Oraindik, ikerketa kualitatibo bat bera ere ez delako egin. Huhezirekin, Mondragon Unibertsitatearekin, tratuan gabiltza berak egin diezagun lan hori.

Maxixatzenen ale berezia

**Badator**

# **KULTURALDIA'10**

Maxixatzen euskaldunon elkarteko lan-ildoetako bat kultura da. Horregatik, aro berri honetan, hasieratik indartsu hasteko gogoia genuen. Aurrera begira etorriko dira kultur sorkuntza desberdinak bultzatzea eta indartzea, euskal kulturaren kontsumoa sustatzea... Baina orain, momentuz eta lehen urrats moduan kultur egitarau oparoa prestatu dugu herrian euskal kulturaz disfrutatzeke aukera emateko.

Azkoitiar guztiengana iritsi nahi dugu, gure herriko azken erpineraino, horregatik, ekitaldiak gune eta areto desberdinetan antolatu ditugu. Inguru desberdinetan kokatuta daudelako, estilo desberdinak dituztelako, estetika propioa dutelako.

Gogoratu denak gonbidatuta zaudetela. Animatu eta parte hartu!



**Abenduaren 14a, asteartea**

***Euskara eta espiritualtasuna hitzaldia***

Joxe Arregi azpeitiarra medio askotan irten da azkenaldian frantziskotarra izateari utzi diolako. Bere hitzak zeresan handia ematen dute.

Gurean, euskara eta espiritualtasunaz mintzatuko da. Posible da espiritualtasunaz disfrutatzea gure hizkuntzan? Berak azalduko digu.

**19:00etan Kukuherriko aterpetxean**

**Abenduaren 16a, osteguna**

***Xiximaxan jardunaldiko ondorioen azalpena***

Julen Arexolaleibak, HUHEZIKo (Mondragon Unibertsitateko) irakasleak, Maxixatzen euskaldunon elkarateak antolatuta Azkoitian egin zen Xiximaxan jardunaldian ateratako ondorioen azalpen soziolinguistikoa emango du.

**19:00etan Elkargunean**





## Abenduaren 17a, ostirala

### *Anari, Mikel Urdangarin eta Rafa Ruedaren kontzertua*

Musika munduan aski ezagunak diren hiru bakarlariek emanaldi aparta eskainiko dute Baztartxo antzokian. Azkenaldian han-hemenka ibili dira formatu eta estilo desberdinetako emankizunak eskaintzen. Oraingoan, beraien berezko estiloen jardungo dute. Bertara joan nahi? Sarrerak leihatilan erostez gain Azkoiti eta Azpeitiko taberna desberdinetan eskura ditzakezu.

**22:00etan Baztartxon**



## Abenduaren 18a, larunbata

### *Haurrentzako Mihiluze*

ETB1eko saioaren jarraitzaile sutsua al zara? Euskaraz iaioa zarela uste duzu? Etorri eta erakutsi zure abileziak. Iban Garatek aurkeztuko du gure lehiaketa. Ongi pasatzeko, dibertitzeko eta euskaraz jarduteko aukera ezinhobea duzu hau. Izena emateko ludotekan edo [maxixatzen@gmail.com](mailto:maxixatzen@gmail.com) helbidean.

**17:30etan Elkargunean**



## Abenduaren 19a, igandea

### *Bustilehorreko poemak*

Jose Luis Otamendi azpeitiarraren eta Juan Azpillaga zarauztarraren eskutik poema errezitaldi berezia entzuteko eskaintza. Ez zara bertaratuko?

**19:00tan Matadeixen**



# Udalarekin harremanak hobetuz

Maxixatzenen azken garaian gora-behera asko egon ziren udalarekin. Urteetan izandako hartu emanak okertzen joan ziren horiek eten arte. Orain, Maxixatzenen aro berria zabaltzen ari gara eta aro horretan Udalarekin berriro harremanak lortu eta hobetzea da gure helburua. Izan ere, euskara denei ukitzen gaituen gaia da. Horregatik, indarrak batu eta sinergia apro-

betxatuz aurrera egitea da gure helburua.

Hitzarmen batean lau urteko plangintza bat eskaintzen diogu Udalari. Elkarlanean eta arlo desberdinetan ekiteko. Lantutako dokumentuan, arlo ekonomikoaz gainera, lan ildoetak azpimarratzen dira. Hauek dira gure hitzarmenaren puntu nagusiak, datozen lau urtetan Maxixatzen euskaldunon elkartetik egin beharrekoak:

## a.-SUSTAPENA eta IKERKETA

1. Hizkuntz dinamikak sozializatu  
Herritarrei bere inguru soziolinguistikoa ulertu eta interpretatzeko erramintak eman.
2. Hizkuntz dinamikaren inguruko ikerketa burutu  
Gure herriak euskarari dagokion lehen ikerketa kualitatiboa egin  
Xiximaxanen aldaera desberdinak sortu, aurrera eraman eta sustatu
3. Azkoitiko 2010eko hiztun tipologiaren ikerketa eta sailkapena egin
4. Aurrera eramaten diren hizkuntz politikak aztertu eta horien gaineko iritzia eman
5. Hizkuntz kontuei buruzko foroetan parte hartu. Topaguneko gogoeta saioak adibidez.
6. Kultura sorkuntza zein kontsumoari eragiten dioten faktoreen inguruko formazioa jaso

## b.-EUSKARARENTZAT FUNTZIOAK BERRESKURATU

1. Komunikazio esparrua landu (aldizkaria, irratia,...)
2. Sarea (sare-sozialak, web orria...)
3. Kultura: kontsumoa zein sorkuntza sustatu

## c.-TOKIKOTASUNETIK EUSKAL HERRIRA

1. Euskararentzat arnasmune izateak erraztu egiten digu euskaraz bizi ahal izatea baina aldi berean berreskuratze prozesuan egiteko jakin batzuk ere bai. Azkoitiak Euskal Herri mailan bete beharko lukeen funtzioa aztertu eta horri dagokion proposamenak egin.

## d.- GEURE HISTORIA BERRESKURATU

1. Euskaraz bizi zen gizarteak bazuen eguneroko bizitza antolatze modu bat, harremanak ulertzeko modu bat. Ondare hori guztia jaso eta zabaltzeko plangintza egin.

# Egin zaitez Maxixatzenen bazkide

Maxixatzenentzako bazkideak dira garrantzitsuena. Izan ere, zer izango litzateke elkarte bat bazkiderik gabe? Gurea behintzat, ezer. Hori argi daukagu.

Behin eta berriz errepikatu dugun moduan, ideiaz beterik gaude, proiektu berriak ditugu esku artean, lankide berriak... Beraz, gutxienez, beste 13 urtez Maxixatzen gure artean izateko indarra batu dugu.

Baina betiko moduan, horretarako bazkideen beharra dugu. Denon

etorkizuna lantzeko, denon inplikazioa behar dugu.


Erein nahi dugun etorkizuna izateko, dirua ere behar dugu. Horregatik jarri dugu martxan bazkidetza kanpaina berria. Prezio sinboliko bat besterik ez dugu eskatzen. Euro bat hileko. Azkoitian kafe bat hartzeko beste ere ez du ematen diru horrek, baina gure proiektuak aurrera eramateko oso lagungarria izango da. Urtebeteko bazkidetza da eskaintzen duguna.

Zer egin behar duzu

horretarako? Aski erraza da. Aldizkari honetan bertan dagoen bazkidetza txartela zure datuekin bete. Moztu eta gure helbidera helarazi.

Aipatu behar, momentuz ez dela aldizkari argitaratuko. Bazkietzan eskaintzen duguna gure proiektuekiko atxikimendua da. Aurrerago etorriko dira aldizkaria, webgunea... eta izango duzu gure berri, ziur!

Hemen azpian dituzu gure plangintzan txertatu ditugun lan-ildoak.





Euro bat besterik ez!



**maxixatzen** euskaldunon elkarteko bazkide egin zaitez

Helarazi txartel hau maxixatzen euskaldunon elkartera (Kultur etxea, 110 postakutxa, 20720 Azkoitia)

Izen abizenak _____	
Jaiotze data <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> / <input type="text"/> <input type="text"/> / <input type="text"/> <input type="text"/>	NAN <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> - <input type="text"/>
Helbidea _____	
Herria _____	PK <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
Helbide elektronikoa _____ @ _____	
Telefonia <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	Mugikorra <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
KKZ <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	(€uro 1 hileko. Urtebeteko bazkidetza)

**OHARRA: Datu babesak**  
Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa jarraituz jakinarazten dizugu xedearen arabera biltzen diren datuak Maxixatzen euskaldunon elkarteko (Azkoitiko kultur etxea) titularitatepeko fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Era berean, jakinarazten dizugu eskubidea duzula datu horietara jotzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkatzeko, eskubide hori Maxixatzen euskaldunon elkarteko (Azkoitiko kultur etxea) Erregistro Orokorrean zuzenduz gauzatu ahal izango duzularik.

